

BILBIDEA: ARANTZAZU, URBIA, AIZKORRI,  
 URBIA (BAZKARIA), ARANTZAZU.

2.007. EKO, APIRILAREN 1ean

IRTEERA betan AUTOBUSEAN



*Handwritten signature*

## **IBILBIDEA: ARANTZAZU, URBIA, AIZKORRI, URBIA (BAZKARIA), ARANTZAZU.**

**2007KO APIRILAREN 1EAN**

**IRTEERA: 8ETAN (AUTOBUSEAN)**

**GOIZEKO 8ETAN IRTENGO GARA BEASAINDIK AUTOBUSEAN ETA  
ARANTZAZURA (831 m) JOANGO GARA. ARANTZAZU, OÑATIKO  
AUZOA DA.**

Elezaharrak dionez, 1479. urte inguruan, Errodrigo Baltzategiko artzain-mutila, ardiak zaintzen ari zen toki gogor eta eder hartan eta Ama Birjina azaldu zitzaion elorri-adarrean. Harrituta, "ARANTZAN ZU?" galdetu zion eta hortik dator ARANTZAZU izena. 2 latatxo eta 7 teilatxorekin estalpea egiteko agindu zion Ama Birjinak Errodrigori eta ermita bat eraiki zuten agindua betetzeko. Mendez mende ermita, elizatxo eta eliza, aldatuz joan dira Arantzazuko eraikinak. XIX. mendean Espainiako liberalen Rodil jeneralak erre egin zituen orduko eliza eta komentua. Gaurko eliza handi eta ederra 1950 inguruan eraikia da eta arte aldetik oso joera aurrerakoikoa. Bertan parte hartuak dira garaiko Euskal Herriko eta kanpoko artistarik handienetakoak: Jurgi Oteitza, Eduardo Txillida, Luzio Muñoz (madrildarra), Nestor Basterretxea eta beste batzuk.

Ibilbidea Sindika jatetxearen albotik gora hasiko dugu, Erroitegi eta Garbilekuren mazeletan gorantz Urbiara doan bidean zehar. Ama Birjinaren iturritik pasatu ondoren, Elorrolako lepora igoko gara (1.163 m) eta handik apurtxo bat beherantz eginda, Urbiako ermita eta ostatura iritsiko gara (1.125 m). Urbiako larreetan barrena, lizarrek eta urkiek babestutako zeharkako ibilbidea jarraituz, Arbelarreko bordetara iritsiko gara eta han, aldapa gogorrean gora doan bidezidorrari ekingo diogu Aizkorri mendi-kateko gailurrik altuenetara iristeko (1.500 m-tik gorakoak).

Aizkorriko gailurra. Aizkorri izeneko tontorra ez da gailurretan altuena, baina bertan daude gurutze Santuaren ermita eta aterpea. Ermita hori, Gipuzkoako erlijio-arteke bitxi erromaniko zaharrena da. Behatoki bikaina da gunehori eta izugarritzko bistak ditu.

Urbiara bidezidor beretik itzuliko gara. Urbiara iritsita, hango zelai zabaletan naturaren edertasunaz gozatuz, indarberritzeko otordua egingo dugu (ogitartekoak, etab. janez), kanpoan edota ostatu-aterpetxean aukeran.

Arratsaldean, Enaizko mazeletan zehar Iferrutzeko leporantz (1.239 m) egingo dugu eta pistan zehar jarraituko. Eskuinaldean Artzanburuko trikuarria utziko dugu eta ondoren Eskistako lepoa igarota, Mallako bordara iritsiko gara. Ondoren Duruko bordara (960 m) eta handik, ongi markatutako bideak, Arantzazuko Goiko Benta ostaturaino eramango gaitu. Autobusa hartu eta Beasaina ilunabarrerako.